



EZ IKUSIARENA EZ EGIN

Emakumeenganako indarkeriaren aurkako nazioarteko eguna

Azaroak 25 inguruko egunean ikastetxean egiteko planteatzen diren ekintzak:
irakasleekin, ikasleekin eta familiekin.

Ez ikusiarena ez egin

Helburuak

- Arazoak 25ean, Hezkuntza komunitate osoak indarkeria sexistaren kontrako erantzun sendoa ikustaraztea.
- Lekukoen paperari buruz sentsibilizatzea.
- Biktimen elkartasunerako akordioak sustatzea.

Jarduerak

- 0.- Irakasleek ikasleekin proposatzen diren ekimenak aztertzea eta inplikatzeari buruzko proposamena jorratzea.
- 1- Bigarren Hezkuntza **“zuk nori lagunduko diozu”** bideoaren inguruan egiten den proposamena jorratzea.
- 2- Haur eta Lehen hezkuntza.
“Alebrijeak” ipuinaren inguruan egiten den proposamena jorratzea.
- 3- Familiekin eta giza eragileekin proposamenak.
- 4- Ikastetxearen ekitaldia.

0.- Irakasleek ikasleekin proposatzen diren ekimenak aztertzea eta horietako batzuetan inplikatzeari buruz.

0.1- Saioaren garapena:

Klaustroan edo eta mintegika, zikloka, Azaroak 25eko proposamen osoa aztertzea gomendatzen da. Egokia da Bigarren Hezkuntzarako egiten den proposamena egitea, hau da, bideoa ikustea, horren inguruan komentarioak egitea eta ikastetxean ematen edo eman daitezkeen egoerak kontuan izanda, erantzuteko jokabide baten bat adostea.

Jarraian, eta hezkuntza komunitatearekin batera, ikastetxearen ekitaldian parte hartzeko, Puntu lila erraldoian eraikitzean parte hartzeko, paper batean leloak, proposamenak, marrazkiak, iradokizunak... idatziko dira.

1.- Jarduera: DBH

Tutoretza saioa: Zuk nori lagunduko diozu

Saioaren garapena

1.1 Zuk nori lagunduko diozu bideoa komentatu

Sarrera

Gure inguruan gertatzen diren agresio asko normaltasunez ikusten dugu eta nahi gabe egoera horretan parte hartzen dugun paperaz ez gara ohartzen. Inoiz pentsatu duzu erasotsailearen konplize izan zaitezkeela? Beste era batera esanda, genero indarkeriari lotutako zenbait egoera ezinezkoak izango lirateke lekukook parte hartuko bagenu.

- Bideoaren lehen zatia ikusi, 38 segundo arte. (Komenigarria da birritan jartzea)

<https://www.youtube.com/watch?v=fAGTpQvMALs>

Denon artean :

- *Zer iruditu zaizue?*
- *Zergatik ematen dituzte eskerrak?*
- *Zein da bideoaren mezua?*
- *Horrelakoak gertatzen dira?*

- *Istorioaren zein egoerak hunkitu zaituen? (bermatu behar da ikasleek ulertu egin dutela).*
- *Zergatik lekukoek babesten dute egoera, (nahiz eta denok jakitun izan egoera ez dela egokiaz?).*

1.2 Talde Lana

Gelako ikasleak lau taldetan banatu bideoan agertzen den egoera bana aztertzeko:

Festan, lanean, institutuan, tabernan.

-Zer egingo zenukete egoera honetan?

1.3- Komunean jarri eta bideoaren proposamenak aztertu.

Taldeak desegin gabe:

- Talde bakoitzeko konklusioak beste taldekoekin partekatu.
- Ondoren, bideo osoa berrikusi eta bideoan ematen diren aholkuak komentatu.
Ados zaudete bideoan luzatzen den mezuarekin?
Ezer ez duzunean egiten, laguntzen zaude.

1.4- Talde lana

Ikasleek ezagutzen, ikusten edo entzuten dituzten antzeko egoerak komentatu. Horietako bat aukeratu eta horren aurrean lekukoak garenok zer egin pentsatu.

Oso barneratuta dago zerbait esaten, denuntziatzen, salatzen... dugunean salatari hutsak (txibato) garela, eta hau aldatu behar dugu errotik; txarra den egoera baten aurrean salaketa egiten duena ausarta baita.

1.5- Bateratze lana. Egindako proposamenak talde handian komentatu.

Irakasleak azpimarratuko du lekukoek egiten dutenaren edo egiten ez dutenaren garrantzia, genero indarkeria prebenitzeko guztiok daukagun ardura.

1.6- Denon artean biktinekiko elkartasunerako proposamenak adostu.

Adibidez: Ixiltasunarekin apurtu, norbaiti kontatu, talde bat sortu ikasleentzat erreferente... Adostu portaera posible batzuk eta horren inguruan, EZ IKUSIARENA lelopean, hormairudiak egin taldeka eta ikastetxea hornitu.

1.7- Banaka.

Denbora txiki bat eman ikasle bakoitzak ikastetxeko puntu lila erraldoian ipintzeko ekarpenaren bat pentsa dezan.

2.- Jarduera: Haur eta Lehen Hezkuntza

Tutoretza saioa: Zuk nori lagunduko diozu?

Saioaren garapena

2.1- Alebrijeak istorioa kontatu eta komentatu.

Istorioa kontatu baino lehen , sarrera txiki bat egingo dugu:

Gure inguruan agresio asko gertatzen dira eta normalak direla iruditzen zaigu. Ohikoak direnez, konturatu gabe eta nahi gabe egoera horretako lekukoak gara. Ezer ez egiten dugunean... eraso jasotzen duenaren pertsonaren ondoan jartzen ez garenean... ezer gertatuko ez balitz moduan beste leku batera begiratu eta joaten garenean ... guk ere erasotzailearen alde jokutzen dugu. Hala ere, horren paperaz ez gara ohartzen. Inoiz pentsatu duzu erasotsailaren konplize izan zaitezkeela? Beste era batera esanda, lekukook parte hartzen badugu, zerbait egiten badugu ... edozein biolentzi adierazpen eta horren barne genero- indarkeriarekin lotutako zenbait egoera ez dira gertatuko. Istorio bat kontatuko dugu.

Istorioa entzun eta gero, talde handian, ikasleek egoera ondo ulertu dutela bermatu behar da. Gelan zein jolastokian ikasleek dituzten sentimenduei erreparatzea garrantzitsua da (gelan guztion lasaitasuna, poztasuna, gozatzeko gogoia eta, gero jolastokian, segun eta nor urduritasuna, deserosotasuna, beldurra, harridura, arrokeria, nagusikeria...). Garrantzitsua da ondo ulertzea zergatik aldaketa hori ematen den, zergatik batzuk gaizki pasatzen ari diren, nola aldatu daitekeen egoera, norberaren erantzunkizuna zein den...

Ulermen hori errazteko, jarraian aipatzen diren galdera batzuk erabili daitezke:

- *Zure ustez: Nola sentitzen zen Miren?, Nola sentitzen zen Mikel?, Eta Mikelen lagunak?, Eta begiratzen ari zirenak?.*
- *Ondo iruditzen zaizue gertatzen ari dena?, Zer iruditzen zaizue ondo?, Zer gaizki?, Nori ematen diote laguntza ezer egin gabe begiratzen ari direnek?, Nor*

da ausarta istorio honetan eta nor goldarra?, Norbaitek aldatu beharko luke bere jokaera?, Nori lagundu behar zaio?, Nor erakusten ari da elkartasuna?...

2.2- Zelan lagundu ahal diogu protagonistari?

Gogoetarako galderak. (Adinaren arabera, taldeka, binaka edo denok batera. Txikiekin talde handian egokiago).

- Sufritzen duenari laguntza eman behar diogu?, Nola?, Nortzuk?, Guztiok ardura/erantzunkizuna badaukagu?.
- Jolastokian dauden guztiek Mireni laguntzeko zer egin dezketen pentsatuko dute: nori esan edota laguntza eskatu, ikasle batek edo taldeak Mikeli aurre egin, begiratzen ari direnek Miren inguratu eta babestu nagusi baten bila beste bat/batzuk joaten diren ...

2.3- Antzeko egoerei buruz hitz egin eta jokabideak adostu.

- Ezagutu, entzun... duzue horrelako egoerak?
- Lagun edota ikaskide bati horrelako bat gertatu zaio? (neska bati loditsua izateagatik iseka egiten dio talde batek, gona igotzen diote beste talde batek...)
- Zer egin dezakegu gelakideok horrelako egoera baten aurrean?. Adostu jokabide batzuk.

2.4- EZ IKUSIARENA lelopean horma-irudiak egin.

Horma-irudiak egin eta ikastetxea hornitu.

2.5- Ume bakoitzak alebrije ezberdinak aukeratu euren esaldien ondoan jartzeko.

Internetetik alebrije ezberdinak aukera ditzakete eta irudiaren ondoan bakoitzak bere mezua idatzi. (Adinaren arabera, irakaslearen laguntza)

https://es.images.search.yahoo.com/search/images;_ylt=A9mSs3XFPI5Wg74ABo2T.Qt.;_ylu=X3oDMTE0YTF0NnlzBGNvbG8DaXIyBHBvcwMxBHZ0aWQDQTVNZRVMwMI8xBHNIYwNzYw--?p=Dibujos+Alebrije&fr=mcafee

2.6- Istorioari amaiera eman.

Egun berean, edo beste egun batean, denon artean, istorioaren amaiera asmatu dezakete.

1-3.- Jarduera: Familiekin eta giza eragileekin proposamenak.

3.1- Saioaren garapena:

OOG/Eskola Kontseiluko berdintasunerako ordezkariaren bidez eta hezkidetzaren batzordearen laguntzarekin, familiekin bilera bat egitea proposatuko da. Bertan, ikasleekin landuko den Azaroaren 25eko proposamena aurkeztuko da. Aitzakia honekin, irakasleek egin/egingo duten bezala, Bigarren Hezkuntzako proposamena egitea eskainiko da. Hau da, bideoa ikustea, horren inguruan komentarioak egitea eta ikastetxean, kalean, inguruan... ematen edo eman daitezkeen egoerak kontuan izanda, erantzuteko jokabide egoki batzuetaz hitz egingo da. Jokabide batzuetaz adostasun handia balego, OOG/Eskola Kontseiluaren hurrengo saiora eramatea egokia litzateke.

Jarraian, eta hezkuntza komunitatearekin batera, ikastetxearen ekitaldian parte hartzeko, Puntu lila erraldoian eraikitzean parte hartzeko, paper batean leloak, proposamenak, marrazkiak, iradokizunak... idatziko dira.

4 Jarduera: Ikastetxeko ekitaldia

- Puntu lila erraldoia osatu

Ez ikusiarena ez egin lelopean ikasle, irakasle, guraso, giza eragile guztiek egindako ekarpenak (alebrijeak, egindako leloak, adostutako jokabideak, iradokizunak...).

- Mezu batzuei argazkiak atera eta partekatu ikastetxe giza sareen bidez
- Ikastetxeko blogean, sitean, webean... ipini hezkuntza komunitatearekin partekatzeko.
- Bertsolaritza txapelketa egin **Ez ikusiarena** leloarekin.

Alebrijeak

“Mirenek leihotik begiratu zuen behin baino gehiagotan zerua argi-argi zegoen eta, hodei formak asmatzea gustatzen zitzaizkion: txakur bat, tiburoia, aurpegiak... eta abarreko formak. Mirenek sormen handia zeukan, baina egun hartan, ez berak bakarrik, gelako ume guztiek disfrutatu zuten klasean oso. Tutoreak Euskal Herriko kontakizun batzuk irakurtzeaz aparte sarritan beste herriko mitoak eta kontakizunak ere kontatzen zizkien, egun horretako kontakizuna "alebrije" izan zen. Alebrijeak Mexikotarrak direla ikasi zuten: irudizko izakiak, animaliak dira, eta gorputza animalia ezberdinez osatuta daude: txakur bat behiaren adarrekin, besteak beste, fantastikoak eta errealak, oso kolore distiratsuez margoztuta... Oso pozik atera ziren gelatik politak baino politagoak benetan irudiak...

Patioan zeudela, bapatean oihu batzuk hasi ziren entzuten, norabide horretara begiratu eta, hara non, Miren ikusi zuten bere gelako Mikel eta honen lagun batzuek inguratuta. Arrapaladan hurbildu ziren eta Mikelek Mireni musu bat eman nahi ziola eta honek ezetz atzeman zuten. Mikel, kasurik egin gabe, gehiago hurbildu zitzaion eta baietz eta baietz esaten zion etengabe.

Bitartean, Mikelen lagunek Mireni musukatzeko oihukatzen zioten, gero eta gehiago, gero eta ozenago... Miren oso txarto pasatzen ari zen eta buruarekin ezetz eta ezetz esaten zuen.

